Era berean, azpimarratu behar da etxebizitza eskuratzeko orduan diruak bakarrik ez duela baldintzatzen (hau da, soldatak eta etxebizitzaren prezioak), prozesu horretan etxebizitzaren eskaintza, gazteen lan-ibilbideak eta bankuak hipoteka-maileguak (eta honen baldintzak) emateko erraztasunak ere, besteak beste, parte hartzen baitute. Hala ere, bi faktore nagusi horiek, lan-merkatuak eta etxebizitzaren merkatuak, nola eboluzionatzen duten aztertzeak laguntzen du ulertzen gazteek zer zailtasun objektibo dituzten familia-etxetik irtetea erabakitzen dutenean.

Gainera, 2021eko datuak testuinguruan jartzeko, kontuan izan behar da, COVID-19aren pandemiaren ondorioz 2020an izandako atzeraldi ekonomikoaren ondoren, 2021. urtea azken hamarkadan gertatutako hazkunde makroekonomiko handienarekin itxi zela. Hazkunde horrek enpleguaren sorrera nabarmena ekarri zuen eta, higiezinaren ikuspegitik, etxebizitzaren salerosketaren erritmo bizia.

Biztanleria gazteak jaso zuen, hein batean, egoera ekonomiko horren onura. Egia da langabeziak behera egin zuela 2020aren aldean, eta batez besteko soldatek gora egin zutela, baina aldi baterakotasun-zifrek ere gora egin zuten. Bestalde, etxebizitza libreen salerosketan aktibitate handia izan zuen etxebizitzaren merkatuak 2021ean. Bai Euskadin, bai Espainian, 2021ean, aurreko hamar urteetako edozeinetan baino etxebizitza gehiago saldu ziren, interes-tasen minimo historikoei eta familia batzuek 2020an metatu ahal izan zuten aurrezkiari esker. Hala ere, seguru asko gazte gutxi izan ziren salerosketa horien protagonistak. Lehenik eta behin, gazte batek nekez izan ohi duelako etxebizitza bat erosteko adina diru aurreztuta. Familiaren laguntzak bakarrik bete dezake baldintza hori, baina baliabide nahikoak dituzten edo egoera sozioekonomiko pribilegiatua duten familien eskura baino ez dago. Bigarrenik, gazteek ez dutelako izaten etxebizitza libre bat eskuratzeko eskatzen den beharrezko kaudimen ekonomikoa, gero eta zorrotzagoa izaten ari dena: antzinatasuna enpleguan, kontratu mugagabea, hipotekaren hileko kuotak etengabe ordainduko direla bermatuko duen soldata, eta abar. Izan ere, etxebizitzaren salerosketaren sektoreko dinamismoa, salgai jarri zuten lehenagoko etxebizitza bat izanik, beren bizitegi-baldintzak hobetu nahi izan zituzten familiek gidatu zutela pentsa daiteke. Horrek azalduko luke familia bakarreko eta tamaina handiagoko etxebizitzaren salerosketen gorakada². Beste era batera esanda, etxebizitza merkatuan izandako leherketa lehendik etxebizitza propioa zuten pertsonen eta familien hobekuntza-ekariak sustatu zuen, baina ez jatorrizko etxea utzi nahi duten gazteen lehen bizilekuaren ekariak.

² <<https://www.bbvaresearch.com/publicaciones/espana-analisis-de-la-demanda-de-vivienda-tras-la-irrupcion-de-la-covid-19/>> [Kontsulta: 2022/10/6].

1. Etxebizitza librea jabetzan hartzeko kostua

Gazte batek etxebizitza librea jabetzan eskuratzeko duen kostuari dagokionez, etxebizitza libre bat, urte horretan notario aurrean eskrituratutako etxebizitza libreen batez besteko prezioan, erosteari lotutako hipoteka-maileguaren lehen hilekoaren ordainketari aurre egiteko gorde beharko lukeen hileko soldata garbiaren (hainbanatutako aparteko ordainsariak barne) proportzioa da. Horrek esan nahi du, eta hori ez da beti horrela, gazte hori besteren kontura ari dela lanean eta, aldez aurretik, finantza-erakundeek mailegu hori emateko eskatzen dituzten baldintza guztiak betetzea lortu duela. Muga horiek gorabehera, adierazle hori oso baliagarria da gazteek etxebizitzaren merkatura sartzeko duten gaitasuna ebaluatzeko; izan ere, % 30etik gorako zifrak ematen dituenean, adierazten du, aztertutako egoeran, gazte batek ezingo lukeela bere gain hartu etxebizitza libre bat bakarrik erostea, edozein hipoteka-eskaera kaudimengabetzat jotzen den gehieneko zorpetze-maila gaingaitzen baitu.

Beraz, 2021ean Euskadiko gazte batek, batez beste, bere soldata garbiaren % 52,9 hipoteka ordaintzeko erabili beharko lukeela baieztatzeak esan nahi du, printzipioz, gazte gehienek ezin ziotela aurre egin etxebizitza libre bat beren kabuz erosteko gastuari. Hala ere, serieko zifrarik baxuena da, batez ere hipoteken interes-tasek izan zituzten gutxienekoengatik (% 1,5) eta soldaten igoeragatik (% 4,5, 2020tik 2021era), eta horiek etxebizitza libreen prezioaren gorakadari (% 1,7) aurre egiteko balio izan zuten. Espainian, oro har, antzeko joera izan zen, baina betiere zifra baxuagoetatik abiatuta. Hori dela eta, serie osoan egiaztatu da Euskadiko gazteek Espainiako gazteen batez bestekoak baino kostu handiagoari aurre egin behar diotela etxebizitza libre bat bere kabuz erosteko.

Jakina, soldata txikiagoak dituzten kolektiboek (eta, era berean, lan-merkatuan presentzia txikiagoa dutenek) are kostu handiagoa hartu beharko lukete beren gain etxebizitza libre bat erosteko: 18 eta 24 urte bitartekoek soldataren % 75,3. Adinak eta batez besteko soldatek gora egin ahala, etxebizitza librea jabetzan eskuratzeko kostua jaisten da, baina, hala ere, ia % 50ean mantentzen da 30-34 urtekoen artean (% 49,1). Emakume gazteentzat kostua gizon gazteentzat baino handiagoa da (soldata garbiaren % 57,1 eta % 51,2, hurrenez hurren).

Gazteek etxebizitza librea erosteko aukera izateari dagokionez, lurraldeen arteko desberdintasunak nabarmenak dira; Gipuzkoan, non etxebizitza libreen batez besteko salerosketa-prezioak Euskadiko batez bestekoa baino altuagoak diren, gazteek soldataren % 59,1 bideratu beharko lukete hipoteka-kuota ordaintzera; Araban, berriz, (non salgai dauden etxebizitzaren prezioak merkeagoak diren) soldataren % 45,4 bideratu beharko lukete.

2. Etxebizitza librea erosteko gehieneko salneurri onargarria

Gazte batek bere kabuz etxebizitza bat erostea erabakitzen badu, kontratatutako hipotekaren lehen kuotaren zenbatekoa, gehienez ere, hileko soldata garbiaren % 30 izan dadin etxebizitza batek izan beharko lukeen gehieneko balioa kalkulatzearen emaitza da erosteko gehieneko prezio onargarria. % 30eko muga hori ez da arbitrarioa, finantza-erakundeek mailegu-eskaera baten bideragarritasuna ebaluatzeko erabiltzen duten irizpideetako bat baita. Adierazle horrek, beraz, alde batera uzten du etxebizitzaren benetako balioa, eta kalkulu teorikoa egiten du, gazteen batez besteko soldatak eta hipoteka-maileguen baldintzak kontuan hartuta.

2021ean, gazte batek Euskadin finantzatu ahal izango lukeen gehieneko salneurria, hasierako gainzorpetze-arriskurik gabea, 128.912 eurokoa da, kontuan hartuta, jakina, beharrezko aurretiazko baldintza guztiak (aldez aurreko aurrekia, diru-sarreraren egonkortasuna, eta abar) betetzen dituela. Gehieneko salneurri onargarri hori serieko handiena da, interes-tasak jaitسي eta batez besteko soldatak igo direlako.

Erosteke gehieneko salneurri onargarria zertxobait handiagoa da Bizkaiko eta Gipuzkoako gazteentzat Arabakoentzat baino, batez besteko soldaten arteko aldeak direla eta. Aldeak are handiagoak dira sexuari eta, bereziki, adinari erreparatuz gero; emakumeen eta 18 eta 24 urte bitarteko pertsonen erosteko gaitasuna dezente txikiagoa da, kasu horietan soldata-aldeak funtsezkoak direlako. Esate baterako, 18 eta 24 urte bitarteko soldatapeko pertsona batek 90.620 euro har ditzake gehienez bere gain, baina 30 eta 34 urte bitarteko batek 139.025 euroko prezioa duen etxebizitza bat erosteko aukera izan dezake berak bakarrik.

Espainiako gazte guztiei dagokienez, joera bera errepikatu da, hau da, erosteko gehieneko salneurri onargarria igo egin da aurreko urteekin alderatuta, eta sexuaren eta adinaren arabera aldeak ere nabarmenak dira, baina, kasu guztietan, gehieneko prezio onargarria Euskadin erregistratutakoa baino txikiagoa da, soldatak ere Euskadin bizi diren soldatapeko gazteek jasotzen dituztenak baino baxuagoak baitira, batez beste.

3. Etxebizitza librearen salneurriaren eta etxebizitza erosteko gehieneko salneurri onargarriaren arteko aldea

Euskadin 2020tik 2021era salmenta-erregimeneko etxebizitza libreak % 1,7 (eta Espainian % 5,9) garestitu baziren ere, gazte batek bakarrik har lezakeen erosteko gehieneko prezio onargarriaren igoera are handiagoa izateak (batez besteko soldaten igoeratik eta interes-tasen jaitsieratik) bi prezioen arteko aldea estutzea ekarri du. Zehazki, Euskadin alde hori 98.400 eurokoa da 2021ean, eta 2020an 100.000 eurotik gorakoa zen. Egia da, hala ere, alde hori handiagoa dela 2016 eta 2019 artean erregistratutakoa baino, eta 2022ko interes-tasen igoerak berriro igoko dela auresuposatzen du. Gogoratu behar da, gainera, hipoteka-mailegu bat eskuratzeko aukera ematen dien egonkortasun egiaztagarria duten soldatapeko gazteek erosteko duten ahalmenaz ari garela.

Emakumeak, 30 urtetik beherakoak eta Gipuzkoan bizi direnak 100.000 euroko atalase sinboliko horretatik gora daude.

Espanian, aldiz, ez dago 100.000 eurotik gorako alderik inongo kolektibotan. Izan ere, etxebizitzaren batez besteko salerosketa prezioa Euskadikoa baino txikiagoa da (gogora dezagun Espainiako batez bestekoa dela), nahiz eta gazteen batez besteko soldatak ere Euskadin kobratzen direnak baino baxuagoak diren, batez beste.

4. Etxebizitza libre bat erosteko behar den diru-sarreraren igoera

Gazte batek etxebizitza-merkatura duen irisgarritasun-maila azter daitekeen beste ikuspegi bat honako hau da: gazte batek merkatu librean etxebizitza bat bere kabuz erosi ahal izateko (erreferentziako urtean notario aurrean eskrituratutako batez besteko salerosketa-prezioan erosten duela eta erosteta horretarako sinatutako hipoteka-maileguaren lehen kuota ordaintzeko bere hileko soldataren % 30 erabiltzen duela kontuan hartuta) jaso beharko lukeen soldataren zenbatekoa kalkulatzeko, eta beharrezko soldata hori bere adineko jendeak batez beste jasotzen duen benetako soldatarekin alderatzeko. Hortik abiatuta, zehaztu daiteke zein ehunekotan igo beharko litzatekeen egungo soldata, kaudimen ekonomikoarekin etxebizitza libre bat eskuratu ahal izateko, egungo merkatuko prezioan.

2021ean, soldatapeko gazte batek bere batez besteko soldata % 76,3 igo beharko luke, merkatu librean etxebizitza bat berak bakarrik erosi ahal izateko eta hipoteka-maileguaren lehen kuotaren ordaintzeta hileko soldataren % 30 izateko. Ehuneko hori nabarmen txikiagoa da 2020an erregistratutakoa baino (orduan % 90,1 zen), eta, hain zuzen ere, serieko txikiena da, baina oraindik ere erakusten du gazteen bakarkako emantzipazioaren onargarritasun txikia.

Lurraldeen arteko aldeak esanguratsuak dira: Gipuzkoako gazteek soldata % 97,1 igo beharko lukete, eta Arabako gazteek, berriz, % 51,3.

Etxebizitza libre bat modu bideragarrian erosteko soldataren beharrezko igoera handiagoa da emakumeen kasuan gizonen kasuan baino (% 90,3 eta % 70,8, hurrenez hurren). Baina igoera handiena 25 urtetik beherako soldatapekoek dagokie, soldata % 150,8 igo beharko luketelako. Adinak gora egin ahala, beharrezkoa den igoeraren ehunekoa txikitu egiten da, baina, hala ere, % 63,5 izango litzateke 30-34 urtekoen taldean.

Espanian, egoera zertxobait hobea da (18 eta 34 urte bitarteko pertsona batek % 55,6 handitu beharko lituzke diru-sarrerak), baina kopuruak erakusten du, oro har, ezin dela bakarrik emantzipatu (izan ere, 2018ko Soldata Egiturari buruzko Lau Urteko Inkestaren arabera, 18 eta 34 urte bitarteko gazte espainiarren % 11,9k soilik kobratzen zuen merkatu librean hipoteka bat ordaintzeari kaudimenez aurre egiteko moduko soldata gordina).

5. Etxebizitza librea erosteko gehieneko azalera onargarria

Batez besteko soldata duen gazte batek etxebizitza libre bat jabetzan bilatzea erabakitzen badu, eskaintza gehienak bere irismen ekonomikotik kanpo daudela ikusiko du. Egoera hori da aurreko adierazleek jasotzen dutena. Aukera bat da, erosketari uko egin gabe, azalera txikiagoko etxebizitzak eskuratzea. Etxebizitza horiek, termino absolutuetan (ez metro koadrokoaren arabera), merkeagoak izaten dira (baina merkatuan tamaina txikiko etxebizitzaren eskaintza oso mugatua da).

Erosteke gehieneko azalera onargarria kalkulatzeko, merkatu libreko etxebizitzaren metro koadroko batez besteko prezioa eta gazteen batez besteko soldata erlazionatzen dira. Horrela, kalkulatzen da etxebizitza batek m^2 -tan zer azalera izan beharko lukeen hipoteka-mailegu baten bidez eskuratuz gero, lehen hipoteka-kuota ordaintzeko hileko soldataren % 30, gehienez, bideratzeko.

2021ean, batez besteko soldaten igoeraren ondorioz (nahiz eta etxebizitza librean metro koadroko prezioen igoera izan ere), Euskadin erosteko gehieneko azalera onargarria handitu egin da, eta 51,2 m^2 -koa dela kalkulatu da, baina etxebizitza mota hori ez da ohikoa merkatu librean.

Gainera, alde nabarmenak daude kolektiboen arabera: Gipuzkoako gazteek nekez eskuratu ahal izango lukete 43,6 m^2 -ko etxebizitza bat eta 18 eta 24 urte bitartekoek 36,0 m^2 -ko etxebizitza bat. Araban bizi diren 30-34 urteko pertsonak eskuratu ahal izango lukete etxebizitza handiena bakarka (73,6 m^2 -koa, zehazki), baina tamaina hori lurralde horretako salerosketako etxebizitza librean batez bestekoa baino dezente txikiagoa da.

Espanian, batez beste, soldatapeko gazteek modu fidagarrian 72,2 m^2 -ko etxebizitza eskura lezakeite bakarrik, baina tamaina hori merkatuko etxebizitza librean batez bestekoa baino 45 m^2 txikiagoa da.

6. Etxebizitza librearen batez besteko azaleraren eta etxebizitza erosteko gehieneko azalera onargarriaren arteko aldea

Euskadin, oro har, merkatu librean salerosten diren etxebizitzaren batez besteko azalera eraikiak ez du ia aldaketarik izan azken urteetan, nahiz eta hori ez den uniformeak izan hiru lurraldeetan, Araban bai egin baitu gora. Euskadiko etxebizitza librean batez besteko azalera 94,9 m^2 -koa da 2021ean. Azalera hori gazte batek hileko hipoteka-kuota ordaintzeko soldataren % 30 baino gehiago erabili gabe eros lezakeenarekin alderatzen badugu (51,2 m^2 2021ean, aurreko adierazlean ikusi dugun bezala), ikusiko dugu 43,7 m^2 -ko aldea dagoela salgai dauden etxebizitzaren batez besteko azaleraren eta gazte batek bere kabuz eros lezakeenaren artean.

Adierazle horren bilakaera positiboa izan da 2020koaren aldean, baina aurreko bost urteetako batez bestekoan mantendu da. Eta ez da alde nabarmenik ikusten adierazleak Espainiako estatu osorako duen balioari dagokionez.

Kolektiboen arabera azterketak erakusten digu 25 urtetik beherakoek artean eta Araban bizi direnen artean (salerosten diren etxebizitzaren batez besteko tamaina handiagoa da bertan), etxebizitza librean batez besteko azaleraren eta bere kabuz erosi nahi duen gazte batek gehienez onar dezakeen azaleraren arteko aldeak 50 m^2 -tik gorakoak direla.

7. Etxebizitza librea alokatzeko kostua

Merkatu librean alokairuko etxebizitza bat eskuratzeko kostua kalkulatzeko, Eusko Jaurlaritzan gordailututako alokairu-kontratuen fidantzen batez besteko zenbatekoa hartzen da kontuan, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren Alokairu Merkatuaren Estatistikak (AME) jasotzen duena. Euskadin fidantzak gordailatzea nahitaezkoa da 2015eko irailaren 26tik aurrera formalizatutako alokairu-kontratu guztietan: ohiko erabilera duten etxebizitzak, ohiko etxebizitzaz bestelako erabilerarako errentamendu-kontratuetan (sasoiko alokairuak barne), bai eta data horretatik aurrera egiten diren aurreko kontratuen berrikuspenetan ere. Fidantza-gordailuen ustiapen horretatik eratorritako zenbatekoak ez datoz bat higiezin agentzietan eskaintzen diren batez besteko prezioekin; era berean, aldeak daude eskaintako salerosketa-prezioen eta notario aurrean erregistratutakoen artean, baina horiek dira ondorio ofizialetarako erregistratuta geratzen direnak.

Gordailututako alokairu-fidantzen arabera, 2021ean gazte bati alokairuko etxebizitza libre bat eskuratzeko errenta ordaintzeko bere soldata garbiaren erdia (% 51,1, zehatzago esanda) erabiltzea dakarkio. Adierazle horren balioan ez da aldaketa handirik izan, eta Espainiarako ere ez dago konparazio-baliorik, erakunde publiko batean fidantza jartzea ez baita nahitaezkoa autonomia-erkidego guztietan.

Kasu honetan, lurralde historikoen arteko aldeak ez dira erosketan bezain nabarmenak, baina Gipuzkoa da oraindik ere etxebizitza eskuratzeko gehien kostatzen den lurraldea. Emakumeek gizonak baino kostu handiagoak jasaten dituzte bere kabuz emantzipatzeko, eta ahalegina bereziki nabarmena da 25 urtetik beherako kasuan, hileko soldataren % 72,6 errenta ordaintzera bideratu beharko luketelako. Balioak gainzorpetzearen mugaren gainetik daude, baita soldata handiagoak jasotzen dituzten 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen artean ere (soldataren % 47,3 bideratu beharko lukete).

8. Etxebizitza librea alokatzeko gehieneko errenta onargarria

Erosketaren hipotesiaren izenkideak bezala, etxebizitza librea alokatzeko gehieneko errenta onargarriak adierazten du pertsona batek hilean gehienez ordain lezakeen zenbatekoa, bere soldata garbiaren % 30 baino gehiago horretara bideratu gabe (hipoteka-mailegu baten bideragarritasunaren azterketarekin gertatzen den bezala, diru-sarreraren % 30 baino gehiago alokairua ordaintzera bideratzea epe labur eta ertainean jasanezina den karga ekonomikoa dela uste da). Finantza-elementuak esku hartzen ez dutenez, gehieneko errenta onargarri hori soldata garbiaren % 30 da zuzenean, eta, beraz, soldaten bilakaeraren arabera da.

Soldatek 2020tik 2021era izan duten bilakaera positiboaren ondorioz, alokairuaren gehieneko errenta onargarria % 4,5 igo da azken urte honetan, eta, hilean, 400 eurotik 418 eurora igo da. Espainiako gazteek, batez besteko irabazi txikiagoekin, hilean 373 euro ordaintzeko aukera izan lezakete, kaudimenerako arriskurik gabe.

Adierazleak batez besteko soldaten zenbatekoarekin duen lotura kontuan hartuta, enplegu eta soldata okerrenak dituzten gazteak dira beren gain alokairu-errenta txikiak har ditzaketanak; 18 eta 24 urte bitartekoek ez lukete 300 eurora iritsiko (294 euro, zehazki), eta emakumeek 44 euroko aldea dute gizonetik.

Nolanahi ere, alokairuko gehieneko errenta onargarria ez da iristen inongo kolektibotan merkatu libreko batez besteko prezioetara Euskadin, hurrengo adierazlean ikusiko dugun bezala.

9. Merkatuko alokairu-errentaren eta etxebizitza alokatzeko gehieneko errenta onargarriaren arteko aldea

Soldaten igoera (eta, ondorioz, gehieneko errenta onargarria) bat etorri da merkatu libreko alokairu-prezioen igoerarekin; beraz, 2020tik 2021era, gehieneko errenta onargarriaren eta merkatuko batez besteko errentaren arteko aldea % 3,3 jaitsi bada ere (303 eurotik 293 eurora), azken urteetako joera goranzkoa da argi eta garbi. Hori dela eta, gazte batek ordain dezakeenaren eta ordaindu behar duenaren arteko aldea gero eta handiagoa da (225 euro 2016an eta 293 euro 2021ean).

Gipuzkoan, aldea batez bestekoa baino handiagoa da, eta 317 eurora iristen da. Emakumeek ere 300 eurotik gora dituzte, eta, beraien kasuan, gehieneko errenta onargarriaren eta merkatuko errentaren arteko aldea 324 eurokoa da. Baina ordaindu daitekeenaren eta ordaindu behar denaren arteko alderik handiena 25 urtetik beherako soldatapekoek jasaten dute, eta horien artean distantzia hori 418 eurokoa da (hau da, ezingo lukete hileko soldataren erdia ere ordaindu merkatuko egungo prezioan).

10. Etxebizitza libre bat alokatzeko behar den diru-sarreraren igoera

Adierazle horrek kalkulatzen du zer soldata-igoera beharko lukeen gazte batek bere kabuz etxebizitza bat merkatuko prezioan alokatu ahal izateko, hileko soldata garbiaren % 30 baino gehiago erabili gabe (Eusko Jaurlaritzan gordailututako alokairu-kontratuen fidantzen batez besteko zenbatekoari deitzen diogu merkatuko prezioa). Euskadi osoan, 2021ean, igoera hori % 70,2koa izan beharko litzateke 18-34 urteko soldatapeko batentzat (2020ko % 75,8 baino txikiagoa, baina 2016ko % 55,6 baino dezente handiagoa).

Gipuzkoan, gazteek % 75,3 igo beharko lukete soldata, bere kabuz alokatu ahal izateko etxebizitza libre bat, merkatuko prezioan, soldataren % 30 baino gehiago erabili gabe; emakumeek are gehiago igo beharko lukete soldata, % 83,6 zehazki; baina, zalantzarik gabe, 18 eta 24 urte bitarteko pertsonak beharko lukete gehien soldata-igoera hori, % 142,1, haiek bakarrik alokairuko etxebizitza libre bat eskuratu ahal izateko. Zifra horiek azaltzen dute zergatik dagoen hain gazte gutxi bakarrik bizitzen alokatutako etxebizitzetan.

11. Pisu babestu bat jabetzan eskuratzeko kostua

Etxebizitza libreen eta pisu babestuen batez besteko zenbatekoen arteko aldeak direla-eta (2021ean, etxebizitza libreen batez besteko prezioa 227.312 eurokoa da eta pisu babestuena, aldiz, 162.783 eurokoa), bai eta horiek finantzatzeko hipoteka-maileguei aplikatu beharreko interes-tasen artean daudela ere (etxebizitza libreen kasuan, % 1,5 eta, pisu babestuen kasuan % 0,7), ondoriozta daiteke Euskadin etxebizitza babestua eskuratzeko baldintzak askoz hobeak direla gazteentzat merkatu librera jotzeko baliabidea baino. 2021ean, Euskadin 18 eta 34 urte bitarteko gazte batek jabetzako pisu babestu bat eskuratzeko bere hileko soldata garbiaren % 28,8 hipotekaren lehen kuota ordaintzera bideratu beharko luke. Ehuneko hori etxebizitza libre bat jabetzan eskuratzeko kostua baino ia 25 puntu txikiagoa da, eta, gainera, zorpetzeko aholkatzen den gehieneko mugaren azpitik geratzen da (soldataren % 30ean finkatzen da muga hori).

Gipuzkoako gazteek eta emakumeek zertxobait gainditzen dute % 30eko muga, nahiz eta etxebizitza babestuaren prezioan lurraldeen arteko aldeak merkatu librekoak baino askoz txikiagoak diren. 25 urtetik beherakoek dute, berriz ere, sarbide-kosturik handiena (% 41,0), baina, hala ere, merkatu librean beren gain hartu beharko luketena baino askoz txikiagoa da.

Hala ere, gazte batek 2021ean etxebizitza babestu bat erosteko dituen benetako alternatibei buruzko emaitzak testuinguruan jartzeko, kontuan izan behar da urte horretan eskrituratutako pisu guztietatik % 4,9 baino ez direla babestutako pisuak izan, azken hamarkadako portzentajerik txikiena. Beraz, nahiz eta etxebizitza babestu bat jabetzan eskuratzeko kostua irisgarritzat jotzen den gazteentzat, oso gutxi dira gazteek eskura ditzaketen etxebizitza babestuak. Hori guztia kontuan hartu gabe gazteek ia ez dutela aurretiazko aurrezkia sortzeko gaitasunik, eta beren diru-sarrerak, hipoteka-mailegu bat jarraian ordaintzeko, ezegonkorrak izaten direla.

12. Pisu babestu bat alokairuan eskuratzeko kostua

Alokairuko etxebizitza babestua eskuratzeko ere % 30eko mugaren azpitik geratzen da 18-34 urteko soldatapeko gazteentzat; izan ere, 2021ean soldata garbiaren % 28,1 alokairu-errenta ordaintzeko gorde beharko lukete. 25 urtetik beherakoek, berriz, % 40,0 bideratu beharko lukete³.

Erosketaren kasuan bezala, etxebizitza libre bat alokatzeko kostuaren eta etxebizitza babestu bat alokatzeko kostuaren arteko aldea 20 puntutik gorakoa da. Abantaila horri gehitu behar zaio alokairuko etxebizitza babestu bat eskuratzeko ez dela beharrezkoa aldeaz aurretik erosketaren kasuan bezain aurrezpen handia izatea.

Eragozpen handiena ez da egin beharreko ahalegin ekonomikoa, baizik eta eskuragarri dauden alokairuko etxebizitza babestuen bolumena, ez baitira iristen eskaerari erantzutera (2021ean, alokairuko etxebizitza eskatzen zuten 35 urtetik beherako 17.675 pertsona zeuden Etxebiden izena emanda).

³ Nolanahi ere, Eusko Jaurlaritzaren jabetzakoak diren edo haren bitartekaritza-programen parte diren etxebizitza babestuaren gehieneko muga ezartzen da, eta beraz, hileko errentaren zenbatekoak ezin du gainditu familia-unitate errentariaren diru-sarreraren % 30.

Laburbilduz

Etxebizitza librea eskuratzeko kostuak zera adierazten du txosten honetan: 18 eta 34 urte bitarteko soldatapeko pertsona batek bere hileko soldata garbiaren (aparteko ordainsari hainbanatuak barne) zein ehuneko bideratu beharko lukeen merkatu libreko etxebizitza bat erosteko hipotekaren hileko kuota edo alokairu-errenta ordaintzera. Kostu hori, jabetzan zein alokairuan, % 50 baino zertxobait handiagoa da. Kostuak behera egin du 2021ean 2020arekin alderatuta, soldaten igoera merkatu libreko etxebizitzaren salerosketa- eta alokairu-prezioen igoera baino portzentualki handiagoa izan delako.

Nolanahi ere, etxebizitza librea eskuratzeko kostu horiek gaintitu egiten dute finantza-erakundeek eskatzailearen kaudimena zehazteko ezarritako muga (soldata garbiaren % 30), eta gainzorpetzearen mugaren (soldata garbiaren % 40) gainetik ere badaude, eta horrek agerian uzten du gazteek ezin dutela bakarrik emantzipatu.

Alderantzizko kalkulua egiten bada, etxebizitza librea merkatuaren egungo prezioan eskuratzeko gazteen soldata zenbat igo beharko litzatekeen jakiteko, ikusten da igoerak % 70etik gorakoak direla, bai erosteko, bai alokatzeko.


Etxebizitza babestuak, erosketan zein alokairuan, askoz ere kostu onargarriagoak ditu soldatapeko gazteentzat. Teorian, aukera horiek bidea ematen diete gazteei bakarrik emantzipatzeko kaudimen ekonomikoarekin (diru-sarreraren iturri egonkorra izanez gero). Kasu honetan, arazoa da etxebizitza publikoen eskaintza txikia dela.

Gipuzkoako gazteek ordaindu behar dituzte kostu handienak merkatu librean sartuz gero, batez ere erosteko, lurralde horretan etxebizitza libreak garestiagoak direlako.

Adinak gora egin ahala, soldatek ere gora egiten dute, eta, beraz, etxebizitza eskuratzeko kostua txikiagoa izaten da, bai erosteko bai alokatzeko, nahiz eta merkatu libreak 30 eta 34 urte bitarteko pertsonak ere etxebizitza ordaintzeko gehiegizko zorpetze-egoeran jartzen dituen.

Azkenik, aipatu behar da gizon eta emakume gazteen arteko soldata-desberdintasunak zailtasun handiagoak dakarziela emakumeei bere kabuz emantzipatzeko.

I ERANSKINA



Adierazleak
eratzeko
erabilitako
datuak



1.-18-34 urte bitarteko gazte soldatadunen batez besteko hileko soldata garbia (hainbanatutako bi aparteko ordainsari barne), sexuaren, adin-taldearen eta lurralde historikoaren arabera eta Espainarekiko alderaketa (eurotan)

€		EUSKADI	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	ESPAINIA
Guztira, 18-34 urte	2016	1.347	1.350	1.356	1.332	1.135
	2017	1.302	1.304	1.311	1.287	1.151
	2018	1.335	1.282	1.344	1.345	1.193
	2019	1.335	1.282	1.344	1.346	1.212
	2020	1.334	1.281	1.343	1.344	1.171
	2021	1.394	1.339	1.403	1.405	1.245
Emakumeak 18-34 urte	2016	1.210	1.213	1.219	1.196	1.029
	2017	1.185	1.187	1.193	1.171	1.071
	2018	1.204	1.182	1.212	1.213	1.075
	2019	1.209	1.194	1.218	1.219	1.118
	2020	1.270	1.220	1.278	1.280	1.103
	2021	1.292	1.241	1.300	1.302	1.142
Gizonak 18-34 urte	2016	1.447	1.449	1.457	1.430	1.204
	2017	1.407	1.409	1.416	1.390	1.220
	2018	1.419	1.416	1.429	1.431	1.276
	2019	1.391	1.385	1.401	1.402	1.261
	2020	1.421	1.365	1.430	1.432	1.256
	2021	1.439	1.426	1.449	1.450	1.294
18-24 urte	2016	909	911	915	898	783
	2017	892	894	898	882	814
	2018	920	921	926	927	881
	2019	962	924	968	970	873
	2020	961	923	968	969	854
	2021	980	941	986	987	899
25-29 urte	2016	1.223	1.226	1.232	1.209	1.079
	2017	1.186	1.188	1.194	1.172	1.110
	2018	1.252	1.203	1.261	1.262	1.175
	2019	1.286	1.235	1.295	1.296	1.200
	2020	1.284	1.267	1.293	1.294	1.158
	2021	1.337	1.284	1.346	1.347	1.231
30-34 urte	2016	1.441	1.443	1.451	1.424	1.283
	2017	1.394	1.396	1.403	1.378	1.306
	2018	1.433	1.376	1.442	1.444	1.362
	2019	1.464	1.406	1.474	1.475	1.377
	2020	1.443	1.431	1.452	1.454	1.308
	2021	1.503	1.444	1.513	1.515	1.385

Iturria: guk geuk osatu dugu, Estatistika Institutu Nazionalaren (EIN) Lan Kostuaren Hiruhileroko Estatistikako (LKHE), Soldata Egiturari buruzko Inkestako (SEI), Soldata Egiturari buruzko Urteroko Inkestako (SEUI), Bizi-baldintzei buruzko Inkestako (EU-SILC) eta Biztanleria Aktiboaren Inkestako (BAI) datuak eta EUSTATEN Errenta Pertsonal eta Familiarraren Estatistikaren datuak oinarri hartuta.

2. Hipoteken interes-tasak eta amortizazio-epeak

ETXEBIZITZA LIBREA

	Hipoteka-maileguen interes-tasa (%)	Etxebizitza erosteko kontratutako hipoteka-mailegu berrien batez besteko iraunaldia (hilabeteak)
2016	2,0	277
2017	1,9	280
2018	1,9	283
2019	1,9	283
2020	1,7	287
2021	1,5	295

Iturria: Espainiako Bankua eta Jabetzaren, Ondasun Higigarrien eta Merkataritza Ondasunen Erregistratzaileen Espainiako Elkargoa.

ETXEBIZITZA BABESTUA EUSKADIN

	Babes publikoko etxebizitza bat erosteko etxebizitzaren prezioaren % 80 gainditzen ez duen hipoteka-maileguen urteko interes-tasa efektiboa (%)	Hipoteka-maileguen amortizazio-epea (hilabeteak)
2016	2,1	360
2017	1,8	360
2018	1,8	360
2019	1,6	360
2020	0,8	360
2021	0,7	360

Iturria: guk geuk osatu dugu, Etxebidek (Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuak) argitaratutako interes-tasa efektiboak kontuan izanik eta amortizazio-epeen estimazioa eginez.

ETXEBIZITZA BABESTUA ESPAINIAN

	Mailegu kualifikatuen urteko interes-tasa efektiboa (%)	Hipoteka-maileguen amortizazio-epea (hilabeteak)
2016	1,3	360
2017	1,6	360
2018	1,9	360
2019	1,9	360
2020	1,7	360
2021	1,5	360

Iturria: 2016an eta 2017an, geuk egina, "Etxebizitzaren eta Birgaitzearen Estatuko Plana 2009-2012" abiapuntutzat hartuta, eta amortizazio-epeen zenbatespena (etxebizitzaren alokairua, eraikuntza-birgaitzea eta hiri-berroneratzea eta -berrikuntza 2013-2016 sustatzeko Estatuko Planak aurreko planeko neurriei eutsi zien, eta beste urtebetez luzatu zen). 2018tik aurrera, "Martxoaren 9ko 106/2018 Errege Dekretua, 2018-2021 aldirako Estatuko Etxebizitza Plana arautzen duena" indarrean jarri zenetik, etxebizitza libre bat erostearen kasuan aplikatzen den interes-tasa bera aplikatzen da

3. Etxebizitza librearen eta etxebizitza babestuen m²-ko batez besteko salneurria (eurotan / eraikitako metro koadroko)

ETXEBIZITZA LIBREA*

€	EUSKADI	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	ESPAINIA
2016	2.247	1.564	2.173	2.663	1.375
2017	2.279	1.628	2.161	2.792	1.442
2018	2.316	1.672	2.233	2.769	1.482
2019	2.403	1.733	2.304	2.869	1.521
2020	2.496	1.748	2.405	2.984	1.512
2021	2.520	1.815	2.442	2.980	1.594

* Barnean pisu berriak zein bigarren eskukoak edota familia bakarreko etxebizitzak sartzen dira.

Iturria: Notariotzaren Kontseilu Nagusia.

ETXEBIZITZA BABESTUA**

€	EUSKADI	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	ESPAINIA
2016	1.861	1.522	1.896	2.082	1.083
2017	1.873	1.569	1.947	2.082	1.082
2018	1.859	1.670	1.968	2.246	1.078
2019	1.860	1.688	1.946	2.411	1.087
2020	1.834	1.682	1.891	2.660	1.151
2021	1.996	1.803	2.062	2.336	1.194

** Datuak pisu babestuei dagozkie, etxebizitzaren sustapen publikoaren barruan gehien-gehienak pisuak baitira.

Iturria: Notariotzaren Kontseilu Nagusia.

4. Etxebizitza librearen eta etxebizitza babestuen batez besteko salneurria (eurotan / etxebizitza osoa)

ETXEBIZITZA LIBREA*

€	EUSKADI	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	ESPAINIA
2016	201.321	153.968	197.167	226.410	147.098
2017	202.483	159.191	193.029	235.610	152.717
2018	205.234	162.635	200.006	231.163	158.529
2019	211.434	169.760	203.676	239.369	162.726
2020	223.417	182.652	212.324	256.658	169.194
2021	227.312	187.323	219.233	256.139	179.119

* Barnean pisu berriak zein bigarren eskukoak edota familia bakarreko etxebizitzak sartzen dira.

Iturria: Notariotzaren Kontseilu Nagusia.

ETXEBIZITZA BABESTUA**

€	EUSKADI	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	ESPAINIA
2016	142.073	127.391	136.434	152.094	97.227
2017	140.556	133.315	135.854	143.207	98.967
2018	148.759	145.997	151.528	155.804	101.122
2019	147.132	144.013	146.196	180.153	102.756
2020	150.275	153.312	141.226	202.129	111.548
2021	162.783	158.049	162.628	176.033	114.510

** Datuak pisu babestuei dagozkie, etxebizitzaren sustapen publikoaren barruan gehien-gehienak pisuak baitira.

Iturria: Notariotzaren Kontseilu Nagusia.

5. Saldutako etxebizitza libreen eta babestuen eraikitako batez besteko azalera (m²-tan)

ETXEBIZITZA LIBREA*

m ²	EUSKADI	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	ESPAINIA
2016	91,7	103,0	92,6	85,9	111,6
2017	91,5	105,1	91,9	85,1	110,4
2018	91,6	106,2	92,6	84,2	111,7
2019	90,4	104,8	90,5	84,7	112,1
2020	93,4	116,2	90,6	88,7	118,1
2021	94,9	121,9	92,9	87,8	117,7

* Barnean pisu berriak zein bigarren eskukoak edota familia bakarreko etxebizitzak sartzen dira.

Iturria: Notariotzaren Kontseilu Nagusia.

ETXEBIZITZA BABESTUA**

m ²	EUSKADI	Arabaa	Bizkaia	Gipuzkoa	ESPAINIA
2016	76,4	84,1	73,8	74,7	89,8
2017	75,0	85,3	71,6	71,9	91,5
2018	80,0	87,5	77,9	71,5	93,8
2019	79,1	85,6	76,6	75,7	94,5
2020	82,0	91,2	76,5	76,7	96,9
2021	81,5	87,7	79,6	76,7	95,9

** Datuak pisu babestuei dagozkie, etxebizitzaren sustapen publikoaren barruan gehien-gehienak pisuak baitira.

Iturria: Notariotzaren Kontseilu Nagusia.

6. Etxebizitza libreen eta babestuen batez besteko hileko alokairu-errenta (eurotan)

ETXEBIZITZA LIBREA

€	EUSKADI	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
2016	629	546	643	644
2017	639	559	651	656
2018	667	592	671	690
2019	689	622	690	713
2020	704	635	702	730
2021	712	646	708	739

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioak sailak osatzen duen Alokairu Merkatuaren Estatistika (AME).

ETXEBIZITZA BABESTUA*


€	EUSKADI	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	ESPAINIA
2016	268	268	268	268	354
2017	329	329	329	329	354
2018	319	319	319	319	413
2019	342	342	342	342	413
2020	352	352	352	352	413
2021	392	392	392	392	414

* Datuak pisu babestuei dagozkie, etxebizitzaren sustapen publikoaren barruan gehien-gehienak pisuak baitira. Gainera, kontuan izan behar da alokairuaren prezioa aldatu egiten dela etxebizitza soziala edo babestua den eta errentarien diru-sarreraren mailaren arabera; izan ere, Eusko Jaurlaritzaren jabetzakoak diren etxebizitzetan edo haren bitartekaritza-programetan sartzen diren etxebizitzetan gehieneko muga ezartzen da, eta beraz, hileko errentak ezin du gainditu familia-unitate errentarien diru-sarreraren % 30.

Euskadiko datuen iturria: Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren Higiezen Eskaintzari buruzko Inkesta. Inkesta honek ez du lurralde historikoen arabera banakapena eskaintzen babestutako pisuen kasuan; beraz, lurralde historiko bakoitzari Euskadiko batez besteko balioa egotzi zaio.

Espainiako datuen iturria: 2016 eta 2017 urteetarako, "txandakako alokairuko etxebizitzetan" gehieneko prezioaren eta "alokairu babestuko etxebizitzetan" gehieneko prezioaren arteko batezbesteko aritmetikoa (2013-2016 Estatuko Plana). 2018-2021 aldirako, alokairuko etxebizitzak sustatzeko aurreikusitako bi dirulaguntza modalitateen gehieneko prezioaren batez besteko aritmetikoa (2018-2021 Estatuko Plana).

II.ERANSKINA:



Datuen iturriak
eta metodologia
oharrak



Adierazleak eratzeko erabilitako datuen iturria

1 Etxebizitza librea jabetzan hartzeko kostua

- ✓ Notariotzaren Kontseilu Nagusiaren estatistika, notario aurrean erregistratutako etxebizitza libreen salerosketa-prezioak jakiteko (etxebizitza berriak eta bigarren eskukoak, barne sarturik pisuak eta familia bakarreko etxebizitzak).
- ✓ Espainiako Bankua, etxebizitza libreak erosteko eman diren hiru urtetik gorako hipoteka-maileguen batez besteko interes-tasak jakiteko
- ✓ Jabetzaren, Ondasun Higigarrien eta Merkataritza Ondasunen Erregistratzaileen Espainiako Elkargoa, Higiezinaren Erregistro Estatistikaren urtekarietan argitaratzen den etxebizitza erosteko kontratatutako hipoteka-kreditu berrien batez besteko iraunaldia jakiteko.
- ✓ Estatistika Institutu Nazionalaren (EIN) Lan Kostuaren Hiruhileroko Estatistika (LKHE), Soldata Egiturari buruzko Inkesta (SEI), Soldata Egiturari buruzko Urteroko Inkesta (SEUI), Bizi-baldintzei buruzko Inkesta (EU-SILC) eta Biztanleria Aktiboaren Inkesta (BAI), bai eta EUSTATEN Errenta Pertsonal eta Familiarraren Estatistika ere, batez besteko soldata kalkulatzeko.

2 Etxebizitza librea erosteko gehieneko salneurri onargarria

- ✓ Espainiako Bankua, etxebizitza libreak erosteko eman diren hiru urtetik gorako hipoteka-maileguen batez besteko interes-tasak jakiteko.
